

MUGITZEN GARA!



AURRETIKO JARDUERAK

1. IKASTETXERAKO BIDEAN

Helburua

Hiriko garraiobide garbienak eta osasungarrienak errepasatzea.

Deskribapena

Jarduera honetan, hirian lekualdatzeko modu desberdinak landuko dituzte irakasleek ikasleekin, eta arreta-gunea osasungarrienak eta ingurunearekiko errespetuzkoenak direneta jarriko dute.

Jardueraren garapena

Hiriko joan-etorrietarako modu desberdinak landuko dituzte irakasleek ikasleekin, eta arreta berezia jarriko dute osasunerako eta ingurumena zaintzeko onuragarrienak direneta.

Reme eta haren lagunak ikastetxerako bidean erakusten dituen bideoa ikusiz, beren eguneroko bizimoduan dauden mugikortasun-ohiturak identifikatuko dituzte ikasleek eta aukera garbiagoen, seguruagoen eta iraunkorragoen gainean hausnartuko dute, adibidez, oinez ibiltzearen, bizikletaz ibiltzearen edo bidaiak partekatzearen gainean.

Horrez gain, hitz egitea eta parte hartzea sustatuko da, beren ideiak, esperientziak eta ingurumenarekiko errespetuzkoagoa den mugikortasun batekin lotutako proposamenak adierazteko aukera izan dezaten.

Baliabidea



[Ikastetxerako bidean](#)

MUGITZEN GARA!

2. HONELAKO SOINUAK ENTZUTEN DIRA KALEAN

Helburua

Hiri-inguruneke soinu desberdinak ezagutu eta haien gainean gogoeta egitea, mugikortasunarekin lotuta daudenak identifikatuta eta arreta-gunea jarrita garraiobideen zaratan eta parkeko soinuetan, eta bai haiek soinu- eta ingurumen-kutsaduran duten eraginean ere.

Deskribapena

Jarduera honetan, hiriko soinu desberdinak aktiboki entzutea landuko dute irakasleek ikasleekin, eta arreta jarriko dute **garraiobideen zarata (adibidez, autoena)** eta **naturako soinuak (adibidez, parkeko txorienak)** bereiztean, eta bai soinu- eta ingurumen-kutsaduran duten eraginean ere.

Jardueraren garapena

Irakasleek ikasleak gidatuko dituzte hiriko soinu desberdinak entzutean, Geniallako "Honelako soinuak entzuten dira kalean" jardueraren bidez. Ikasleek garraiobide desberdinekin lotutako soinuak identifikatu eta bereizi beharko dituzte, adibidez, autoenak, bizikletenak, autobusenak edo oinezkoenak, eta bai txoriekin lotutakoak ere.

Jarduera honetatik abiatuta, bultzatuko da hausnartzea zein soinu diren atseginenak edo kutsatzaileenak eta zer garraiobidek sortzen duten zarata gutxiago eta errespetatzen duten gehiago ingurunea. Horrez gain, hitz egitea sustatuko da, ikasleek beren ingurune hurbileko zaratari buruz dituzten esperientziak eta sentipenak partekatzeko, hiriko mugikortasun iraunkorarekin eta bizi-kalitatearekin lotuz.

Baliabidea



[Honelako soinuak entzuten dira kalea](#)

Iruñerriko Mankomunitatearen Ingurumen Heziketarako Programa

948 203 444

atencion@mancoeduca.com